



Cassamance: sentimenduen mapa

Mikelazulo Kultur Elkartea

Mikelazulo kultur elkarteak "Cassamance: sentimenduen mapa" izeneko forma anitzeko erakusketa paratu genuen Errenteria/Oreretako Xenpelar etxeko goiko solairuan (Madalena kalean). Apirilaren 9tik 13ra egon da zabalik, arratsaldez (eta larunbatean, baita goizez ere).

2007ko abenduaren 29an irten eta urtarrilaren 13a bitarte Mikelazuloko 13 kidek sormen proiektu bat gauzatu zuten Cassamancean eta Senegalen. Erakusketa honek han egindako lanen islak eskaintzen ditu, han bizitakoaren geografia, funtsean Cassamanceko "Diola" herriaren berri eman nahirik.

Erakusketan euskarri ezberdinak topatzen ahal dira: argazkiak, instalazioak, bideo artistikoak, mar-goak... erakusketa ixteko gainera, apirilaren 13an, irudi eta soinuekin uztartutako errezitaldi bat eskaini zen Xenpelar etxean bertan.



“Cassamance: sentimenduen mapa

Orain hilabete batzuk Mikelazulo kultur elkar-teko hamairu lagun joan ginen Cassamancera, ‘Bide ikusezinak marrazki’ izeneko proiektua gauzatze-ra: Oussouye, Kafountine eta Djenbereng bezalako herrietan egindako sormen lantegi eta kultur elkar-trukeak, kide guztion ahalak eta ametsak batzen zituen ikuskizuna (txotxongiloak, antzerkia, poesia, pintura, musika...)... Hamabost egunetan zehar begie-kin marraztutako bideak ikusezina izateari utzi zion, eta horrela sortu genuen “sentimenduen mapa”, orain forma anitzeko erakusketa honetan jasotzen saiatu garena.

Mapetatik at erauzitako herria da Cassamance, historia liburu ofizialetatik egotzitako kultura ‘Diola’rena. Horren aurrean sentimenduen mapa izan da topatu ahal izan dugun kartografia bakarra. Bertan ikus edo are sentitu dezakezun sentimenduen mapa honetan Cassamanceren isla ezberdinak topatu ditzakezu, horretan saiatu gara behintzat, sormenaren tinta bide-lagun: mapa fisikoak (haurrak, emakumeak, aurpe-giak...), mapa mentalak (denbora, ametsak...), soinu mapak, lekuen kartografiak (errepideak, zuhaitzak, koloreak, zaborra...), eta egitura sozialaren islak (pate-rak, itotako izenak, amets bilakatutako gabeziak...).

Zuretzat sortu dugu mapa hau. Noizbait zure kabuz, Cassamancen bertan jarraitu ahal izango duzu-lakoan...”



